

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 215/2020 Erabakia, maiatzaren 26koa. Indarrik gabe uztea larrialdi deklarazioa, kontratazio prozeduretan COVID-19ari aurre egiteko neurriak hartzetik eratorritako premiei erantzuteko zena

Martxoaren 17ko 155/2020 Erabakiaren bidez, xedatu zen COVID-19ari aurre egiteko neurriak hartzetik eratorritako premiei erantzuteko Arabako Foru Aldundiak eta Arabako foru sektore publikoko erakundeek egin beharreko kontratu guztietan justifikatuta egongo zela berehala jarduteko beharra eta, beraz, larrialdiko izapidea aplikatuko zitzaiela, hain zuzen Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeak 120. artikuluan jasotakoa. Horrez gain, ezarri zen eman eta gero justifikatzekoak izan ahalko zirela COVID-19a dela-eta pertsonen osasuna babesteko neurriak hartzeak eragindako gastuei aurre egiteko beharrezkoak ziren funtsak.

Horren bidez, kontratazio publikoaren arloan koronabirusak eragindako ezohiko egoerei erantzuna eman nahi zitzaien. Gaur egun, baina, neurri horiek ez dira justifikatzeko modukoak, gaur egungo egoera eta COVID-19aren bilakaera kontuan hartuta eta, beraz, indarrik gabe utzi behar dira.

Horregatik, diputatu nagusiak proposatuta, eta Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bileran gaia aztertu ondoren, hauxe

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Indarrik gabe uztea martxoaren 17ko 155/2020 Erabakia, zeinaren bidez onetsi baitzen larrialdi deklarazioa, kontratazio prozeduretan COVID-19ari aurre egiteko neurriak hartzetik eratorritako premiei erantzuteko.

Bigarrena. Erabaki honek onesten den egunetik eragingo ditu ondorioak, edozein dela ere ALHAOn argitaratzen den eguna.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko maiatzaren 26a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE